

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektua aurrera eraman aurretik, garrantzitsua da behar ditugun elementu guztiak ondo antolatzea eta zeintzuk diren jakitea. Baliabide horiek baliabide materialetan eta bai libe ukiezinetan banatzen dira. Baliabide materialak gure enpresan behar ditugun elementu fisikoak dira eta baliabide ukiezinak fisikoak ez diren baina gure enpresan garrantzi bera duten baliabideak dira.

- **Baliabide materialak:**
 - Azpiegitura
 - Ekipamendu teknologikoak
 - Sustapen materiala
- **Baliabide ukiezinak:**
 - Profesionalak
 - Kontaktu sarea
 - Ziurtagiriak

Gure baliabide materialen artean azpiegitura dago, eta hor sartzen da gure lokala, terapiara egokitutako gure gelek, itxarongelarekin eta altzariekin. Baina ez espazio fisikoa bakarrik, lokalaren hornitzaileak ere beharrezkoak dira, hala nola, argia eta interneta.

Baita ekipo teknologikoak ere, gure terapia berritzailea ahalbidetzeko. Errealitate birtualerako gailuak behar ditugu: betaurrekoak eta kaskoak. Gure betaurrekoak biofeedback-sentsoreekin konbinatu behar direnez, "HP Reverb G2" betaurrekoak aukeratu ditugu, "NeuroSky MindWave" sentsorearekin konbinatzeko. Kaskoetarako "HyperX Cloud Stinger" erabiliko dugu, isolamendu akustikoarekin, Errealitate Birtualerako ezin hobeto.



Gure terapietan erabiltzen den material nagusia betaurrekoak diren arren, horiek behar bezala funtzionatzeko kalitate handiko ordenagailuak eta Internet erabiliko ditugu. Dell markako ordenagailuak erabiliko ditugu. Azkenik, sustapen-materiala dago, hau da, gure enpresa ezagutarazteko eta gure proiektuan interesa izan dezaketenak erakartzeko behar ditugun

baliabideak. Web-orria eta instagram-profila ditugu. Hemendik gure bezeroek jakin behar duten informazio guztia ematen dugu.

Bestalde, baliabide ukiezinak daude. Psikologoak eta errealitate birtualean adituak diren profesionalak ditugu. Antsietate-nahasmenduak maneiatzen esperientzia duten psikoterapeutekin lan egiten dugu, ezinbestekoak baitira saio terapeutikoak diseinatzeko eta gainbegiratzeko. Teknikariak ingurune birtualen diseinuan eta inplementazioan ezagutza duten profesionalak dira. Gure taldea gure enpresaren oinarria da terapiak behar bezala funtziona dezaten. Hala ere, gure taldeak harreragileak eta garbitzaileak ere baditu.

Gainera, harreman estrategikoak behar ditugu erakundeekin eta profesionalekin; osasun- eta hezkuntza-zentroekin. Elkarlanak ikastetxeekin, institutuekin eta zentroekin, terapian interesa izan dezaketen bezero horiek identifikatzeko. kontaktu-sareak gure zerbitzuaren irismena zabaltzen du, konfiantza sortzen du eta gure enpresa hedatzeko aukera zabaltzen du.

Azkenik, gure enpresan beharrezkoa den beste baliabide bat ziurtagiriak dira, eskaintzen ditugun zerbitzuen profesionaltasuna eta konfiantza berresten duen bermea. Osasun mentala gauza serio bat da, eta horregatik nahi dugu gure bezeroek konfiantza izatea gure terapia segurua dela. Egia da pertsona askok ez duela konfiantzarik teknologia berrietan, eta are gutxiago osasun mentala bezalako gauza garrantzitsu batekin konbinatzean.

Horretarako, Innovamind VRn gure bezeroen osasuna lehenesten dugu beste ezeren gainetik, eta erabiltzen ditugun baliabideei buruzko zalantzarik ez izatea nahi dugu. Horretarako, ziurtagiri profesionalak bermatzen ditugu, hala nola, taldeko psikologoaren eta terapeuten lizentzia ofizialak. Psikologiako ziurtagiriez eta aitorten teknologikoez gain. Psikologoaren Elkargo Ofizialaren akreditazioa dugu, eskatutako estandar etiko eta profesionalak betetzen dituzten psikologo elkargokideei ematen zaiena. Hori lortzeko, ziurtatu behar dugu gure taldeko psikologo guztiak PEOeko kide direla eta etengabeko prestakuntzako programetan parte hartzen dutela. Teknologiarik dagokionez, ekipo teknologikoetarako eta softwareerako CE ziurtagiria lortuko dugu, CE ziurtagiria duten hardware/software hornitzaileekin lan egiten baitugu.

Elkargoaren Nortasun Ziurtagiria
Certificado de Identidad Colegial

202X

Bizkaiko Psikologia Elkargoa
Colegio de Psicología de Bizkaia

NOMBRE Y APELLIDOS

ostenta la condición de colegiada en el COP Bizkaia con el número
BI00000
En la actualidad está facultada para el ejercicio de la profesión regulada de Psicología, al que ha accedido con la titulación oficial correspondiente, y se encuentra en pleno disfrute de sus derechos colegiales y al cumplimiento de las correspondientes cuotas.

Y para que así conste, donde proceda, se expide el presente certificado.

Bizkaiko Psikologia Elkargoaren kidea da hurrengo zenbakarekin
BI00000
Gaur egun, Psikologiaren lantze arautuan jarduteko gaituta dago. Dagokion titulazio ofizialarekin sartu da lantze horretan eta elkargokide gisa dauzkien eskubideak osorik baliatu ditzake. Gainera, dagokion kuotak ordaintu ditu.

Eta horrela jasota gero dadin, behar den lekuan ziurtagiri hau ematen da.


D. Fernando Álvarez Ramos
Bizkaiko Psikologia Elkargo Idazkaritza
Secretario del Colegio de Psicología de Bizkaia
Bilbao, 202X. urteko xxxxx XX/ En Bilbao, X de XXX del 202X.

